



TXANDAKAKO LANGILEAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK 3146:

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Maria Victoria Sedano Ugarte
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: TXANDAKAKO LANGILEAK GARRAIATZEKO ZERBITZUA
2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Partzuergoko Txandakako Langileak garraiatzeko Zerbitzua.
3.- Loteka banatzea: ☒ Bai ☐ Ez Lotearen deskribapena eta zenbatekoa: 1. LOTEA Galindoko HUA 2. LOTEA Beteluriko EUT
4.- CPV: CPV kodea: 60120000-5 Deskribapena: Taxi-zerbitzuak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez dagokio
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)	LAUROGEITA LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (84.999,37) 1. LOTEA Galindoko HUA: 52.258,87 euro 2. LOTEA Beteluriko EUT: 32.740,50 euro
---	---



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 169.998,74 euro

Loteak:

☒ BAI

☐ EZ

Loteen balio zenbatetsia:

1. LOTEA Galindoko HUA: 104.517,74 euro

2. LOTEA Beteluriko EUT: 65.481,00 euro

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

1. lotea:

URTEA: 2025EKO PARTIDA: 92001.16303 ZENBATEKOA: 41.081,28 €, BEZa gabe

URTEA: 2026KO PARTIDA: 92001.16303 ZENBATEKOA: 11.177,59 €, BEZa gabe

2. lotea:

URTEA: 2025EKO PARTIDA: 92001.16303 ZENBATEKOA: 25.737,67 €, BEZa gabe

URTEA: 2026KO PARTIDA: 92001.16303 ZENBATEKOA: 7.002,83 €, BEZa gabe

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI

☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria.

8.- Konturako ordainketak: Ez dagokio.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa
URTEBETE (1)

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

Urte bat (1)

4.- Bermealdia: Ez dagokio.

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Preskripzio teknikoen agirian ezarritako ibilbidea

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoa halako bat izan beharko da gutxienez. (1.



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

lotea: 52.258,87 euro - 2. lotea: 32.740,50 euro)

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Kontratuaren xede diren zerbitzuen edo lanen izaera bera edo antzekoa duten eta gehienez azken hiru urteetan egindakoak diren lan edo zerbitzu nagusien zerrenda, honako hauek zehaztuta: zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua.
Ondo gauzatu izanaren ziurtagirien bidez egiaztatuko da, eta, gutxieneko baldintza moduan, bolumen handieneko urtean, urteko zenbateko metatua kontratuaren edota batez besteko urterokoaren (kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada) balio zenbatetsiaren % 70 edo gehiago izan beharko du.
Lote bakar bati buruzko proposamenen kasuan, gaitasuna batez besteko urterokoa eskaintzen den lotearen zenbatekoari buruzkoa izango da.
- Zerbitzua gauzatzeko erabiliko den garraiobidea identifikatzen duen adierazpena. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dutenean, dagokion egiaztagiria erantsiko zaizkio.
Adierazpen horretan, ibilgailu bakoitza zein loteri esleitzen zaion adieraziko da, baldin eta bi loteetarako eskaintza egiten bada.
Gainera, kontratuaren zerbitzura dagoen flota osatzen duten unitateak zehaztu beharko dira. Horretarako, enpresa lizitatzailleak zenbat bidaiari garraia ditzakeen zehaztu beharko du, eserleku kopurua adierazita. Ez dira bost eserleku baino gutxiago eta bederatzi eserleku baino gehiago izango (gidariarena barne).
Prestazioa gauzatzeaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa jasotzen duen adierazpena. Zerbitzua betetzeko, lizitatzailleek gutxienez bi pertsona jarriko dituzte kontraturako, eta hori bermatu egin beharko da kontratua gauzatzen den bitartean.
Pertsona horiek, nolahi ere, gutxienez bost urteko esperientzia egiaztatua izan beharko dute pertsonak garraiatzeko zerbitzu profesionalak egiten. Esperientzia hori lan-kontratuen bidez edo bidaiari-garraioaren, taxi-zerbitzuaren edo gidaridun ibilgailuen alokairuaren sektorean autonomo gisa alta emanda dagoela egiaztatzen duten ziurtagirien bidez egiaztatu ahal izango da. Beste edozein agiri baliodunen bidez ere egiaztatu ahal izango da, baldin eta agiri horrek eskatzen den gutxieneko esperientzia betetzen dela frogatzen badu. Hala badagokio, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dutenean erantsi beharko dira egiaztagiria.
Justifikatutako arrazoiren batengatik zerbitzua gauzatu behar duen langilea ordeztu behar bada, ordeztuak ere eskatutako gutxieneko esperientzia izan beharko du. Esperientzia hori lan-kontratuen bidez edo bidaiarien garraioan, taxi-zerbitzuan edo gidaridun ibilgailuen alokairuan autonomo gisa alta emanda dagoela egiaztatzen duten ziurtagirien bidez egiaztatu ahal izango da. Beste edozein agiri baliodunen bidez ere egiaztatu ahal izango da, baldin eta agiri horrek eskatzen den gutxieneko esperientzia betetzen dela frogatzen badu.
Enpresa lizitatzailleak egiaztagiria aurkeztuta egiaztatu beharko du zerbitzua ematen duten pertsonen gidabaimeneko puntu guztiak dituztela.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

Eskatutako kaudimen teknikoaren ordezkari honako sailkapen honek balio izango du:

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Fakultatiboa ☐ Ez

R taldea 01 azpitaldea. 1. kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eman beharreko zerbitzuaren lan-plangintza eta metodologia jasotzen dituen enpresa-memoria.

Kontraturako jarriko dituen ibilgailuen erantzukizunpeko adierazpena: modeloa, matrikula, eserleku kopurua, ingurumen-bereizgarrien egiaztagiria eta ingurumena babesteko neurrien deskribapena jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

Gutxienekotik gora kontraturako jarri diren pertsonen erantzukizunpeko adierazpena.

Enpresa adjudikaziodunak datu pertsonalen tratamenduari buruzko klausulak eta zinpeko adierazpena sinatu beharko ditu. (1. eranskineko klausulak).

Eskaintzatik kanpo uztea eragiten duten ez-betetze teknikoak.

Baldintza-agirietan jasotakoarekin bat ez datorren eskaintza aurkeztea.

Agiri hauetan nahitaezko gisa eskatzen diren puntuetakoren bat ez sartzea.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Eskaintza kalkulatzeko balio beharko duten ibilbide-zerbitzuaren parametro orokorrak (gutxi gorabeherako zerbitzu kopurua eta prezio unitarioa zerbitzu bakoitzeko) merkatuko prezioen arabera kalkulatu dira. Gehieneko prezio unitarioaren barnean honako gastu hauek sartuko dira, besteak beste:

- Garraio-azpiegiturak erabiltzearen ondoriozko gastuak.
- Ibilgailuek sortzen duten gastu oro.
- Ibilgailuek sortzen dituzten gastuak: mantentze-lanek, ordezeko piezek, tasek, erregaiek eta abarrek eragindakoak.
- Lanak egiteko behar diren materialak, tresnak eta lanabesak.
- Kontratuaren xede diren lanak egiteko eta legeriak ezartzen dituen betebeharrak guztiak betetzeko beharrezkoa den beste edozein gastu.

Zenbatetsitako kopuru horiek ez dute adjudikaziodunarekiko inolako zerbitzu-konpromisorik sortzen, eta, beraz, benetan egindako zerbitzuen arabera fakturatuko da, irabazi duen eskaintzak osatzen duen zerbitzu bakoitzak duen prezio indibidualean, urte bakoitzeko egun naturalen arabera.

Eskaintza ekonomikoaren eredua honela egituratuko da:

1. lotea:



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

EGUNAK GUTXI GORABEHERA	BILBO - GALINDO KM GUTXI GORABEHERA	URTEKO KM-AK GUZTIRA GUTXI GORABEHERA	GEHIENEO PREZIOA EGUNA	GUZTIRA
365 *	45	49.275	143,18 €	52.258,87 €

2. lotea:

EGUNAK GUTXI GORABEHERA	BILBO – BETELURI KM GUTXI GOR.	URTEKO KM-AK GUZTIRA GUTXI GORABEHERA	GEHIENEO PREZIOA EGUNA	GUZTIRA
365 *	35	38.325	89,70 €	32.740,50 €

*366 egun, baldin eta bisurtea bada.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

Lehendakaria:

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jn.

Xabier Orue Moro jn.

Itziar Zarate Urrutia and.

Gerardo Latorre Pedret jn.

Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jn.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoearekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBB) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Memoria teknikoa eta exekutatzeko metodologia..... 0 eta 30 puntu artean

- Lanen programazioa: jardueren iraupen justifikatua, koherentzia jardueren banaketa sekuentzialean, lortutako xehetasun-garapenaren maila **(gehienez 15 puntu)**.
- Ibilbideen deskribapena eta ezagutza, eta ordutegiak egokitzea denbora eta dirua aurreztu ahal izateko **(gehienez 10 puntu)**.
- Proposatutako zerbitzuaren egokitasuna. Antolamendua eta erantzuteko denborak. Larrialdietarako prestasuna **(gehienez 5 puntu)**.

Kontraturako jarritako baliabide teknikoak (ibilgailuak) 0 eta 15 puntu artean

- Kontraturako jarritako ibilgailuen kopurua eta ibilgailuen modernizazio-maila **(gehienez 5 puntu)**.
- Eskatutako eserleku kopurua (5, gidariarena barne) baino kopuru handiagoko ibilgailuak kontraturako jartzea **(gehienez 5 puntu)**.
- Kontraturako jarritako langile kopurua (2 baino gehiago) **(gehienez 5 puntu)**.

Gizarte- eta ingurumen-irizpideak 0 eta 5 puntu artean

Ingurumen-irizpideak (gehienez 4 puntu)

Bereizgarri/eranskailu materialak izatea (gehienez 2 puntu)

Ingurumen-kutsaduraren mailaren arabera, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako ingurumen-bereizgarriak/-eranskailuak dituzten ibilgailuak.

Ingurumen-kudeaketako sistemak (gehienez puntu 1)

Zerbitzua ingurumena babesteko neurriekin emateko hartu behar diren neurriak deskribatzea: energia-gastu txikiagoa; gas-isuriak murrizteko erabiltzen diren sistemak.

Gidatze efizienterako ikastaroak (gehienez puntu 1)

Gidatze efizienterako ikastaroak izatea, kontratua betetzeaz arduratuko diren langileek erregaia aurrezteko eta gas kutsatzaileen isuria murrizteko optimizatzeke.

Gizarte-irizpideak 0 eta 1 puntu artean

Enplegua ez ezik, enplegua egonkortzeko neurriak ere sustatzea (kontratu mugagabeak nagusi izatea baloratuko da, bai Preskripzio Teknikoen Agirian jasotako kontratuaren xedea emateko eskatzen diren langileen aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtuta, bai kontratu mugagabea duten langileak adskribatuta, kontratua gauzatzen den aldi osoan).

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak, kontratua gauzatzean aplikatuko direnak (kontratua gauzatzen duten langileei berdintasunaren arloko prestakuntza eta informazioa ematea eta sentsibilizazio-kanpainak egitea).

Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak (BBUPerako zerbitzuan teknifikazio handiagoa sartzea, lana eta familia bateragarri egiteko aukera ematen duen neurrian), prestakuntza eta laneko osasuna eta segurtasuna babestea.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarria egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarria baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez



Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

- Partzuergoak, kontratua gauzatzen den bitartean, ibilbidearen eta garraio-ordutegien definizioa eguneratu ahal izango du, bere antolamendu-beharrei behar bezala erantzuteko. Horren ondorioz ez da eskainitako prezioa aldatuko, salbu eta programatutako distantzian eguneko 9 km-tik gora gehiago egitea badakar 1. lotean, eta eguneko 7 km-tik gora gehiago 2. lotean.
- Aldaketak ezingo du berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko bestelako unitate-prezioren bat ezartzerik.
- BBUPek, kontratua gauzatzen den bitartean, ibilbidearen definizio zehatza ezarri ahal izango du kontratuaren beharren arabera.
- 1. eranskina: Datu pertsonalen babesa. Enpresa adjudikaziodunak datu pertsonalen tratamenduari buruzko klausulak eta zinpeko adierazpena sinatu beharko ditu.
Kontratua gauzatzeko baldintza berezi hau ezartzen da:
- Enpresa adjudikaziodunak, kontratu osoan zehar, zerbitzua ematean kalitatea eta segurtasuna bermatu beharko ditu, eta Preskripzio Tekniko Partikularren Agiriko «Kalitatea eta segurtasuna zerbitzua ematean» izeneko puntuan adierazitakoa zorrotz beteko du.
- Ibilgailuek Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritako lan-ordutegia errespetatu beharko dute beti.
- Zerbitzua ematen duten ibilgailuek bereizgarriren bat eraman beharko dute (argiduna, kartelen bidezkoa edo antzekoa), erabiltzaileek zalantzarik gabe jakin dezaten Partzuergoko garraiobidea dela.
- Enpresa adjudikaziodunari ohiko erabiltzaileen zerrenda emango zaio, zerbitzua erabiltzeko baimena duten pertsonak kontrolatzeko. Hala ere, BBUPen txartel korporatiboa izango da zerbitzua erabiltzea ahalbidetuko duen bitarteko argia.
- Ibilgailua matxuratzen bada edo gidaria ondoezik badago, eta horrek zerbitzua garaiz eta behar bezala ematea eragozten badu, enpresa adjudikaziodunak bere kontura eman beharko du zerbitzua, eta ohiko kalitate bereko edo handiagoko baliabideak erabiliz.
- Adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia, eta ezin izango dizkie datu horiek kontratua gauzatzearekin zerikusirik ez duten hirugarrenei laga. Halaber, tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, eta zorrotz bete beharko ditu zaintza-betebeharrak eta indarrean dagoen araudiak kargu horri jartzen dizkion gainerakoak.
Partzuergoak adjudikaziodunari ibilgailua edo ibilgailuaren gidaria aldatzeko eskatu ahal izango dio, bide-segurtasuneko arrazoi oinarritutakoak tarteko, eta adjudikaziodunak ez du horregatik konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango. Eskaera formalki egiten zaionetik aurrera, adjudikaziodunak azkar bete beharko du.
Adjudikaziodunak une oro bermatu beharko du eskainitako zerbitzuaren kalitatea.